



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“TOLOSALDEA SAHARAREKIN”

“Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideek Saharar herriarekiko elkartasuna lortu eta errefuxatu kanpamentuetara ahal den laguntza gehiena eramateko helburua dute. Horretarako bide bat janari bilketa egitearena da.

Janari bilketa hau abendu eta urtarrilean gauzatzen da. Larraulen janari bilketa hau honela egingo da:

- **BILKETA EGITEKO EPEA:** 2011ko abenduaren 26tik
2012ko urtarrilaren 24ra.
- **BILGUNEA:** Larraulgo Udaletxean, bulego orduetan.

- **BILDU BEHARREKO JANARI ETA MATERIALA:**

Lekaleak, hegaluzea oliotan, sardiñak oliotan, azukrea, arroza, pasta, olioak, konpresak eta helduentzako pixaioihalak.

Aurten janari bilketarekin batera eskola materiala jasoko da (koadernoak, arkatzak, ezeztekoak, txorroskiloak).

Bestalde, bildutako elikagai eta material guztia Saharar Errefuxatu kanpamentuetara heltzeko bigarren eskuko kamioiak erosten dira. Kamioi horiek erosteko dirulaguntza eman nahi baldin baduzue, hemen bi kontu korronte:

Kutxa: 2101 0067 22 0011180866

La Caixa: 2100 1758 68 0200077750

Besterik gabe, aurrez zuen laguntza eskertuaz, agurtzen zaituztegu.

Larraulen, 2011ko abenduaren 23an.

Alkateak